

# **Euskal naziotasun hegemonikoaren genealogia baterantz**

(Towards a Genealogy of the Hegemonic Basque Nationalism)

Atutxa Ordeñana, Ibai

Univ. de Barcelona. Gran Via de les Corts Catalanes, 585.

08007 Bartzelona

iatutxa@ub.edu

Jaso: 2009.12.01

BIBLID [1137-4454 (2010), 25; 163-176]

Onartu: 2010.10.21

---

*Euskal filologiako (lingüísticos y literarios) testu kanonico jakin batzuenganako berbisita postestructuralista izan nahi du komunikazio honek, gaur egungo euskal identitatearen pentsamendu hegemonikoa hobeto ulertzten saiatzen. Batez ere Michel Foucaulten genealogian oinarrituta, eta honek kritika poscolonialen izandako erabilera kontuan hartuta, 'Beste' euskaldunaren sorrera aztertu nahi du inguruko identitate-diskurso hegemonikoekin harremanetan jarri (Estatu-nazio franceses y españoles).*

Giltza-Hitzak: Genealogía foucaultiana. Crítica poscolonial. Euskal nazio identitatea. Hegemonía. Beste.

La presente comunicación pretende ser una re-visita postestructuralista de determinados textos canónicos de la filología vasca (tanto lingüísticos como literarios), a fin de intentar una mejor comprensión del pensamiento hegémónico de la identidad vasca actual. Basándonos, sobre todo, en la genealogía de Michel Foucault, y tomando en cuenta la utilización de la misma en la crítica poscolonial, se pretende analizar el nacimiento de 'El Otro' vasco, relacionándolo con los discursos identitarios hegémónicos del entorno (estado-nación francés y español).

Palabras Clave: Genealogía foucaultiana. Crítica poscolonial. Identidad nacional vasca. Hegemonía. El Otro.

Cette communication prétend être une re-visite post structuraliste de certains textes canoniques de la philologie basque (aussi bien linguistiques que littéraires), afin de mieux comprendre la pensée hégémonique de l'identité basque actuelle. En nous basant, surtout, sur la généalogie de Michel Foucault, et en tenant compte de son utilisation dans la critique postcoloniale on tente d'analyser la naissance de 'L'Autre' basque, en le mettant en relation avec les discours identitaires hégémoniques de l'entourage (état-nation français et espagnol).

Mots-Clés : Généalogie foucaultienne. Critique postcoloniale. Identité nationale basque. Hégémonie. L'Autre.

## 1. TEORIA BITARGIAK

Homi K. Bhabhak halako nazio bateko jendea denbora bikoitz (*double-time*) batetik pentsatzea proposatzen du: bata, nazioaren narrazioari, iraganean aurre-ezarritako jatorrian oinarritutako zilegitasuna ematen dioten objektu historikoien izaera emanet; eta bestea, jatorrizko edozein presentzia ezabatzen duen garaikidetasun soilezko prozesu baten txertatutako izakiak eraikiz (Bhabha, 2008: 209).

Komunikazio honetan literatura konparatuari esker aztertu nahi dudana Bhabhak aipatzen duen lehenengo denbora da, hots, nazio eta jatorrien arazoa da euskal filologia eta literaturako testu ezberdinatik igarota. Horretarako garrantzitsua da Foucaulten<sup>1</sup> pentsamenduaren oinarrizko jarrera ulertzea: komunitate baten beraren eta honen izaera politikoaren lehenengo egia jatorria bilakatzen da, baina egia hau, beste edozein bezala ez da zera baino “[una] especie de error que tiene para sí misma el poder de no poder ser refutada sin duda porque el largo conocimiento de la historia la ha hecho inalterable” (Foucault, 1978: 11). Azken finean ez dago “la verdad ni el ser, sino la exterioridad del accidente” (Foucault, 1978: 13).

Era berean interesgarria da bai Saidek<sup>2</sup> eta bai Hardt eta Negrik<sup>3</sup> egin-dako ikuspegí foucaultiaren berriakurketa poskoloniarra kontuan hartzea, imperio eta menpeko lurradeen erlazioak hobeto ulertzeko. Argi dago, dena dela kasketa poskolonial arrunt baten leku-denbora koordenaden aldaketa batekin hasi behar dugula: Saidek esaldi honek erraztu egiten digu lana,

[...] las conexiones físicas y geográficas entre Inglaterra e Irlanda son más estrechas que las que existen entre la misma Inglaterra y la India, o entre Francia respecto a Argelia o de Senegal. Pero la relación imperialista se da en todos los casos (Said, 2004: 354).

Bestalde. Saidek berak literatura eta testu produkzio ezberdinak gure analisian duen lekua hobeto ulertzen laguntzen digu:

---

1. Michel Foucaultek proposatutako “genealogía” edo “arqueología” da testu hau ardaztuko duen irakurketa estrategia. Honela azaltzen du Foucault berak “La arqueología [...] no parece tratar la historia sino para congelarla. De una parte al describir las formaciones discursivas, descuida las series temporales que pueden manifestarse en ellas; busca reglas generales que valen uniformemente, y de la misma manera, en todos los puntos del tiempo: no impone entonces, a un desarrollo quizá lento e imperceptible, la figura apremiante de una sincronía” (Foucault, 1988: 278).

2. Edward Said *Cultura e imperialismon* horrela azaltzen du erlazio hau “el término ‘imperialismo’ como definición de la práctica, la teoría y las actitudes de un centro metropolitano dominante que rige un territorio distante; ‘colonialismo’, casi siempre consecuencia del imperialismo, como la implantación de asentamientos en esos territorios distantes” (Said, 2004: 43).

3. Hardt eta Negrik, beste hainbeste egiten dute *Imperion*: “el colonialismo construye figuras de alteridad y organiza sus flujos en un espacio que se despliega como una compleja estructura dialéctica. La construcción negativa de los otros no europeos es finalmente lo que da una base y sostiene la identidad europea misma” (Hardt, 2005: 143).

[...] todas y cada una de las representaciones, porque son representaciones, están incrustadas primero en la lengua y después en la cultura, las instituciones y el ambiente político del que las hace [...] una representación está eo ipso comprometida, entrelazada, incrustada y entreteljada con muchas otras realidades, además de con la ‘verdad’ de la que ella misma es una representación (Said, 2007: 360-361).

Sarrera labur honetan ezarritako teoria apunteak lotzen bukatzeko, Marx eta Spivak ekarriko ditut hona: Karl Marxen ideien arabera, gizarte denboran etengabe aldatzen doan klase borroka bezala definitzen da, maila ezberdinaren arteko esplotazio erlazioan oinarrituz (Marx, 1998: 52, 77). Horrela bada, Gayatri Spivaken hitzak jarraituz, zera pentsa dezakegu: gu geu botereak ezarritako azalpen ofizialen bidez sortuta gaudela, non iraganari begirako eten eta jarraipen erlazioak azpimarratzen diren, ardatz ezberdinetan dauden kasuan kasuko botere guneen interesen arabera (Spivak, 1987: 105). Azertuko ditugun euskal filologiako kanonaren parte diren testuek botere gune hauen posizio eta diskurtsoak azaleratzen dituzte, Europako pentsamendu eta hegemonia ezberdinekin erlazioan jarriaz.

## 2. HASIERA: APOLOGISTAK ETA BESTE

Interesatzen zaidana beraz, zera da: erlazio imperialistaren sorkuntza, Beste euskalduna kontuan hartuta eta honekin kontaktuan dauden diskurtso dominatzaleetan (español, francés y euskaldunear) sakonduz, euskal identitate hegemonikoaren sorrera ulertzea. Azken finean, botere dinamikak eta hauei esker posizio hegemonikoek ezartzen dituzten kontrol ekonomiak ulertzea da helburu nagusia.

Euskara eta euskal hiztuna, aspalditik irudikatu izan dira, Jose Ramon Zubiaurrek adierazten duen bezala,

[...] con anterioridad a los autores vascos del s. XVI las opiniones acerca de nuestra lengua [...] han sido en general muy negativas, calificándola de “lengua impronunciable”, “habla de perros” etc., en particular los autores clásicos y los viajeros medievales (Zubiaur, 1990: 17).

Hala ere, XVI mendetik aurrera errepresentatuko du komunitate euskal hiztun batek bere burua. Hau dela eta une honetatik hasiko dugu genealogia hau. Modernotasunarekin batera abiatuko gara beraz: Hardt eta Negrik azaltzen duten bezala, entitate guztiei esentzia singular bat ematen zaion garaia da hau eta gizartearen ikuspegi dualista eta hierarkiakoa hartzen dena (Hardt, 2005: 91); Benedict Anderson dioenez bestalde (Anderson, 2000, 46), hebraiera jatorrizko hizkuntza aurre-babelikoa delako pentsamoldeak indarra galtzearekin, Dante Alighieriren *De Vulgari Eloquentiak* ekarri zuen herri hizkuntzen legitimazioarekin, eta inprintaren eta kapitalismoaren sorrelarekin komunitatea imajinatu lehen pausoak emanet.

Inperio kolonial espanyiarri erreparatzen badiogu, XVI mendetik aurrerako testu errepresentazio orok, castellanocentrismenak eta Euskal Apologistenak (identitate propria aldarrikatzen izan baten ere), ez zuten inperioaren irudia indartzea lortu besterik egin eta honekin identitate espanyola. Alde batetik, inperioaren ikuspuntu babesten duten testuak ditugu, Beste euskaldunaren irudia sortuz, non

[...] la posición ideológica desde la que se formula la acusación está condicionada por prejuicios antiguos y muy arraigados ante lo que se percibe como otredad absoluta y no se comprende ni se quiere comprender (Bijuesca, 2006: 67).

Nebriaren *Grammaticatik* bertatik hasita 1492an, hizkuntza inperio espanyiar jaio berriaren zerbitzutara jarritz (Zubiaur, 1990: 58. Bijuesca, 1998: 15); “Castellano Primitivo” bezalako teoriekin jarraituz, XVI bukaeran, gaztelera latinaren ama zela aldarrikatuz (Zubiaur, 1990, 72-75. Bijuesca, 1998: 17-18); eta errepresentazio literarioetara igarotzeko (Josu Bijueskak Sor Juana Inés de la Asunción de 1685<sup>4</sup> artikuluan frogatu duen bezala), non

[...] a los sayagueses, [...] vinculados a cierto tipo de literatura religiosa y en especial al villancico, pronto se unieron en concierto de bárbaros los gallegos, los vizcaínos, los moriscos y los guineos o negros creando una tradición que se extendió por lo menos hasta el siglo XVIII (Bijuesca, 1998: 19),

inperioaren alteritatea hizkuntzaren bidez markatuta eta definituta geratzen da.

Beste alde batetik, Euskal Apologistak hartu zuten posizioa aztertzen badugu, klientelismoak (Bijuesca, 2008: 20) baldintzatuko du, bai testuak sortzeko erabiliko duten hizkuntza (gaztelera), eta baita diskurtsook bereganatuko duten ikuspuntu (inperioarena). Horrela azaltzen du Joseba Gabilondok:

The reorganization of a new rural class emerging from banderizo or clan wars of the Middle Ages did not require a national language, but needed nevertheless a cultural and political tool of differentiation in order to legitimize itself in the Spanish court. In this way, Basques emigrating from the rural Basque Country could join the new class of scribes in the imperial court; Basque proved the ‘old Christian’ status of Basques and gave them automatically universal nobility and easy access to the imperial bureaucratic apparatus from which the Jews were being evicted. At the same time the new class of nobles and mayorazgos (inherit-ing family members, landowners) remaining in the Basque Country could uphold their own economic privileges in front of the Spanish court (Gabilondo, 1999: 10)

---

4. Hizkera “zuzena” eta “okerraren” bereizketa dinamika imperialistaren beharrezko ekintza bilakatzen da Bestea sortzerako orduan. Frantz Fanonen antzera – “In any group of young men in the Antilles, the one who expresses himself well, who has mastered the language is inordinately feared; keep an eye on that one, he is almost white” (Fanon, 1993: 21-21) –Josu Bijuescak erakusten digu hau bere ikerlanean: “las variedades vulgares servirán en las obras literarias para construir imágenes de personajes de origen geográfico o social considerados como marginales según el nuevo rasero del castellanocentrismo político y cultural” (Bijuesca, 1998: 16).

Ezagunak ditugu Juan Martinez de Zaldibia, Esteban de Garibay eta Andres de Poza Apologistak: azaldu berri dugun Europako pentsamendu linguistiko eta filosofiko nagusiarekin bat etorriz, Tubalismoan oinarritutako baskokantabrismo eta baskoiberismoaren diskurtsoarekin eta “vasco primitivo” kontzeptuarekin Espainiako lehenengo hizkuntza gaiztotu gabea zela baiez-tatu zuten. Garaiko eliteak horrela, erabilera kontuan hartuta, bost lurralte ezberdinetara<sup>5</sup> mugatzen dute euskal nortasuna (bat erreinu frantsesean eta lau Espainiakoan). Hau horrela izanik herri nortasuna ez da Apologisten helburua. Klientelismoaren eraginez, autoreok iruditeria kolonialistan parte hartzen dute bete betean, Bestearen sorkuntzan, botereak kolonizatutakoa estigmatizatzeko sortutako argumentuak propio eginez (“barbaro” “antzinako” egiten da; “txakurren hizkuntza” “aitonen semeen hizkuntza biblikoa”). Dialektika negatiboaren<sup>6</sup> antzeko jarrera honekin, inperioaren iruditeria birritan sortzen da. Lehenengoz, inperioaren zibilizazioak bere burua justifikatzen du errepresentazio *castellanocentristen* bidez, eta horretarako alteritate euskaldun absolutua sortuz (Hardt, 2005: 146); eta bigarrenetz, euskaldunak bestearen lekua hartuta, bere burua inperio horren beraren justifikazio eta iturburu bezala ikusten du.

Logika hau, iruditeria hau boterean ezarritako klaseak mantenduta berri-dazten doa erreinu espainiar eta frantsesean: XVII mendean Rafal Mikoleta, Voltaire, edo Arnaud Oihenarten autoreekin adibidez. XVIII mendean, Manuel Laramendiren bidez, beti ere, Europako pentsamendu forma berrietara egoki-tuz eta garaian garaiko joera filosofikoak erantsiz.

La tarea primordial de la ilustración fue dominar la idea de la inmanencia sin reproducir el dualismo absoluto de la cultura medieval, construyendo un aparato trascendental capaz de disciplinar a una multitud de sujetos formalmente libres. El dualismo ontológico de la cultura del Antiguo Régimen debía ser reemplazado por un dualismo funcional y la crisis de la Modernidad debía resolverse con la mediación de los mecanismos adecuados de mediación [...] todo movimiento de autoconstitución de la multitud debe someterse a un orden preconstituido y [...] sostener que los seres humanos pueden basar inmediatamente su libertad en el ser constituiría un delirio subversivo. Éste es el núcleo esencial de la transición ideológica en la que se construyó el concepto hegémónico de modernidad euro-pea (Hardt, 2005: 98-99).

---

5. Zubiaurren Garibayen aipu hau batzen du bere lanean: “Hablan hoy dia esta lengua cinco naciones, las cuatro en España y la quinta en Francia. Los Guipuzcoanos, Vizcaynos, Alaveses y Navarros en la merindad de Pamplona, y los Bascos – gente de las fronteras de España en Francia, de donde dieron ellos a su lengua Bascoíca, que quiere decir habla de bascos, y los demás de la misma lengua les siguieron en ello, y así de Bascoíca se dixo Bascuence esta lengua ...” (Zubiaur, 1990: 122)

6. Negritudearen kasua da Dialektika negatiboaren adibide ezagunena: “la mayoría de las veces, la dialéctica negativa fue concebida en términos culturales, como, por ejemplo, el proyecto de la negritud, el intento de descubrir la esencia negra o revelar el alma negra. De acuerdo con esta lógica, la respuesta a las representaciones colonialistas debe implicar la creación de representaciones recíprocas y simétricas. Aún cuando la negritud de los colonizados sea reconocida como un producto y una falsificación construida en el imaginario colonial, ese reconocimiento no la niega ni la disipa, sino que la afirma ¡como esencia!” (Hardt, 2005: 149).

Joseba Gabilondok “Azkoitiko Zalduntxoak” XVIII bukaeratik XIX mende hasierara euskal berezitasuna gorpuztea lortu zutela gogorazten digu, hartu zitzuten Rousseauen ideiei esker. Apologistek linguistikoki definitutako lurraldetasuna adierazpenetan errespetatzen bada ere, hiru probintziatara mugatzen da estrategia geopolitikoa. Horrela bada, Estatu Frantsesaren sorrerak eta honen zentralismoak<sup>7</sup> euskal alteritateari ahots gabeko subalternitatea jazarriko dio bai euskal pentsamendu hegemonikoa zein frantsesa kontuan hartzen baditugu.

Euskal nortasunaren testu errepresentazioetara itzuliz, garai honetan Astarloa bezalako idazleek euskal apologisten frontea ezartzen dute “Real Academia de la Historia”-ren proposamen *castellanocentrístari* “aurka” eginez (Astorgano, 2003: 353, 370, 403). Proposatzen duen iruditeria eraikitzeo aurretiko pentsamendu baskoiberista edota Rousseauen gizaki eta gizarte primitiboaren ideiak (Astorgado, 2003: 356) berreskuratu eta De Brosses edo Court Gébelinen filosofia sensualistak elkartzen dira (Gomez, 2005: 127), berriz ere garaian garaiko jarrera intelektual europar rarekin bat eginez. Eta berriz ere, boterearen diskurso hegemonikoa klientelismoan errotzen den alteritate negatiboan ezartzen da: berriz ere, Euskal identitate subalternoak bere burua irudikatzeari uko egiten dio inperioa jatorritik eraikitzen saiatzeko, horrela, erlazio koloniala justifikatzu.

Joseba Gabilondok, beste artikulu baten, europar errepresentazioek, XIX osoan zehar euskal identitateari atxikitako alteritate duala aztertzen du (Gabilondo, 2008: 147-154). Mendearen lehenengo erdian, literatura-ren bidez lortzen da hau: Victor Hugoren *Les Orientales* edo *Hernani*, edota Prosper Mérimée-en *Carmen* bezalako testuei esker; bigarrenean antropologiak burutzen du eginbehar hau, besteak beste Paul Broca eta Anders Retziusen lanen bitartez: aldi berean europar aurre-indouropear originala eta zibilizatu gabeko Europa koloniala da euskalduna. Gauzak horrela, Agustin Chaho eta Antoine Abbadieren planteamenduak ideia humboldiarrek eraginda, eta batez ere Nodierren erromantizismotik abiatuta, orduko euskal nortasunaren ulermenaren adibide dira (Gabilondo, 2008: 156), orain arte aipatutako orientalismoaren haria jarraituz, jarrera esenzialista honekin baina lehenengoz dialektika negatiboan bete betean parte hartuz, eta inguruko planteamendu hegemonikoei aurre eginez. Pentsatzeko da garaiko Zaldunxo, Foru mugimendu, Bergarako Erret Mintegi, Euskalerriaren Adiskideen Elkartza eta antzekoen hiru probintzieta mugatutako diskurso hegemonikotik ategoteagatik ez zuela proposamen honek aurrera egin, ez zuela lekurik lortu botere diskurtsoan.

---

7. Marxen hitzakin hobeto uler dezakegu egoera hau “la primera Revolución Francesa, con su misión de romper todos los poderes particulares locales, territoriales, municipales y provinciales, para crear la unidad civil de la nación, tenía necesariamente que desarrollar lo que la monarquía absoluta había iniciado: la centralización; pero al mismo tiempo amplió el volumen, las atribuciones y el número de servidores del poder del gobierno. Napoleón perfeccionó esta máquina del estado” (Marx, 1977: 142).

Tertioz aldatuz, eta Sabino Aranaren ideietara iritsi baino lehen, analisiak euskaraz sortutako testu produkzioa hartu behar du gogoan beranduagoko posizio hegemoniko nazionalista hobeto ulertzeko: XVII-XVIII mendeetan zehar Sarako erretore zen Axular bezalako idazleak Guerorekin 1643; Juan Tartas Zuberoako apaiz eta Arue erretorea *Onsa hilceco bidiarekin* 1666, Joannes Haraneder Donibane Loitzuneko erretorea *Gudu izpiritualarekin* 1750, edo Agustin Kardaberaz *Eusqueraren berri onacekin* 1761 salbuespen gutxiko zerrenda luzearen parte dira, non argitalpenek herria erlijio kristau katolikoan hezteaz gain, euskalduna jatorri eta jalotzatik berezko kristau onaren izaera emanda irudikatzea dute helburu nagusia; XIX mendean joera berdina daku-sagu, Pedro Antonio Añibarroren *Misioco canta santuac* (1819) bezalako testuekin; Fray Bartolomé de Santa Teresaren *Eleisaco zazpi Sacramentuben Icasiquizunacekin* (1819). Trentoko Kontzilioak arreta berezia jarri zuen Nafar erreinuan eta Iurralde euskal hiztunetan paganismo eta protestantismoarekin zuten erlazioagatik (Toledo, 2006: 646). Elizako eliteetatik, eta euskal Iurraldeak ebanjelizatzeko helburuarekin, euskara, doktrinatzeko eliz testuak sortzeko erabili zen ia bere osotasunean. *Peru Abarca* adibide hartuta, Rousseauen pentsamenduarenaganako erreferentzia nabaria darakus, euskara erabiliz, euskaldun originalaren berezko kristautasun propioaren eredua euskal irakurlearentzat sortu eta bereizten da. Nortasunaren eraikuntzak, posizio hegemonikoa Spainiar Erreinuan ezarrita, ez du bereizketa geopolitikoa xede bezala hartzen: helburua berezko jatorri kristauak sortzen dituen komunitateak jarraitu beharreko ereduan oinarritutako posizio ideologiko eta erlijiosoa sortzea da.

### 3. SABINO ARANA ETA JORGE OTEIZA

Benedict Andersonen dioen bezala, XIX mendeko bigarren erdirako Estatu-Nazio independentearen eredu “pirateatzeko” eskuragarria bihurtzen da (Anderson, 2000: 81). Estatu-Nazio Spainiar berria beraz, momentuko “nazionalismo ofizial” horietako baten eredura sortu zen.

These ‘official nationalisms’ can best be understood as means for combining naturalization with retention of dynastic power, in particular over the huge polyglot domains accumulated since Middle ages, or to put it another way, for stretching the short, tight, skin of the nation over the gigantic body of the empire (Anderson, 2000: 86).

XIX mende bukaerarako Inperio Kolonialista Spainiarraren gainbehera hasita bazegoen ere, nazio espainiarraren “azal estua” inperioak propio egiten zuen Iurraldearen gainetik jartzea lortu ahal izan zuen (behintzat Iberiar Penintsula kontuan hartzen badugu) eta honekin, azaldu berri dugun lehengo euskal hegemonia bera ere.

Eraikuntza-testuinguru berri honetan, Estatu-Nazio Spainiar eta Frantsesak berriro lekutzen dute bere burua botere zentro hegemonikoan diziplina zientifiko eta literaturaren bidezko errepresentazioei esker, estatua bera definitu eta existentzia justifikatzeko beharrezko alteritatea sortuz. Gregoire abadea

(Estatu frantsesa eraikitzeko) eta Ramón Menendez Pidal intelektualaren (Estatu española sortzeko) lanak honen adibide argia dira. Lehenengoak Nazio Konbentziorako eginiko informeak argi uzten du nazio hizkuntza den frantsesa lege eta ohitura berriak sortzeko ardatz eta oinarria dela, hau da, anaitasunerako eta gizarte-ongizaterako hizkuntza bakarra bilakatzen dela: egiguren eramailea eta sistema ekonomikoa hobetzeko ezinbestekoa; bestalde, patoisak derrigorrez ezabatzeko beharra dago. Hizkuntza hierarkia honek berezko eta natural izaera hartzan du (Apalategi, 1997: 12-13; Agirreazkue-naga, 2003: 830) eta horrela, sortzean zegoen Estatu-Nazio ereduak lurraldeko bertako alteritateari ahots gabeko subalternitatea jazarriko diela esan daiteke<sup>8</sup>. Menendez Pidalen kasua ederto azaltzen du Prudencia Garcíak,

Si algo cabe deducir de un examen crítico exhaustivo de su obra en relación con su visión de España es la presencia de un intenso impulso nacionalista. Y quisieramos subrayar el término *nacionalista* por oposición a otros como *nacional* o *patriótico*, que en ocasiones se utilizan para denotar un cierto (e incluso apasionado) amor a la tierra natal y la lengua materna, que carece de consecuencias políticas significativas. En Pidal, las teorías científicas tienen consecuencias políticas directas y de gran calado; es más, incluso no es descabellado pensar que son sus convicciones políticas nacionalistas las que guían muchas de sus investigaciones en todos los terrenos, pero particularmente en la definición del *español* y las consecuencias de la misma en la organización política de España. En efecto, [...] su visión romántica e historicista de la Historia de España, afirmadora de la hegemonía política y cultural de Castilla, le conduce directamente a decretar la extinción de todas sus lenguas y dialectos distintos del *español*, la *lengua literaria común*. Que este paradigma se presente como resultado de un estudio científico y no como un proyecto político sometido a la ciudadanía no invalida su carácter nacionalista; simplemente lo enmascara (García, 2004: 546).

Era honetan, Sabino Aranaren izenpean jaiotako euskal nazio baterako proposamen hegemonikoak momentura arte ezarritako pentsamendu osoa bere egiten du eta Beste euskalduna birdefinitzen du, lehenago sortutako irudi kolonialistak berreskuratz, baina oraingoan, benetako dialektika negativoaz baliatuz hiru probintzien mugen barruan. Pidalen diskurso castellanocentristsak bezala, Aranak nazioaren mitologia eraikitzen du, horrela azaltzen du Imanol Galfarsorok ekintza hau,

---

8. Manex Goyhenetchek horrela azaltzen du Frantziako departamentu banaketa, eta euskal identitatean izan zuen eraginagatik: "la historiografía ha puesto a menudo de relieve la importancia de las intervenciones de los hermanos Garat y de otros diputados del País Vasco en la Asamblea Nacional. Pero si se examinan los registros de deliberaciones de las asambleas locales, se impone una evidencia: esta cuestión suscitó un gran movimiento de opinión en el país, provocó una gran decepción, constituyó incluso un hito en la historia de la Revolución del País Vasco. Queda claro que más allá de la intervención de los diputados del País vasco en la Asamblea Nacional, la opinión pública vasca favorable hasta entonces al proceso revolucionario, como se ha visto, vivió la imposición del nuevo reparto departamental como un grave atentado a sus aspiraciones profundas" (Goyhenetche, 2004: 181).

[...] mitoak [...] kultura baten historia antolatzeko, batzeko eta argiztatzenko – biziarratzeko – bitarteko eraginkor bihurtzen dira. Mitoen funtziek kontuan hartzerakoan, beraz, egia ala gezurra diren galdeztzeak berak ez du batere zentzurik. ‘Mitologizatzea’ nazioaren existentzia nolabaiteko molde historiko narratibiziatu batean finkatzeko ahalegina da. Mitogintza naziogintza da (Galfarsoro, 2005: 50).

Estrategia berdina erakusten dute guztiak garaiko Europako pentsamendu nagusia jarraitu eta kulturaren alorrera hipotesi darwinistak aplikatuta – “es la esencia central del pensamiento dominante durante la Era del Imperio y que se conoce habitualmente como el social-darwinismo” (Mees, 2004: 10) – arrazismo nabari baten bukatzea (Pidalen proposamen filologikoan argi geratu den bezala). Guzti honekin, Sabino Arana euskal kulturaren berpizkunderako eragile aktiboa izan zen (Iztueta, 2003) eta 1903an hil ondoren, abertzalesun sabindar burgesa garaiko euskarazko literatur sorkuntzari esker indarra hartzen joango da: bestea beste, euskal eleberri tradizionalarekin<sup>9</sup>, eta Lauaxeta, Oixe edo Lizardiren poesia modernoarekin. Idazleok Sabinoren pentsamenduaren alde egin, sorkuntzearako dialektika negatiboko iruditerira jo eta euskal identitatearen hegemonia politikoa hiru probintziatarra mugatzen dute berriro ere: Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba.

Genealogia honekin bukatzen hasteko, Jorge Oteiza eta bere *Quosque Tandem...!* lanarekin hasi zen euskal identitatearen ber-irakurketa ulertzea ezinbestekoa da. Garaiko egoera sozio-ekonomikoari erreparatuz gero:

Después de la Revolución Soviética de 1917 y de la primera gran guerra interimperialista, evidentemente, el capitalismo no podía continuar desarrollándose como hasta entonces. Había que tomar, como ya dijimos, una decisión clara; o bien optar por la Revolución Comunista mundial, o bien transformar el imperialismo capitalista del imperio (Hardt, 2005: 263).

1950 eta 60ko hamarkadan Euskal Herriko mugimendu independentistak ikuspegi marxista-leninista hartzen du bere formuletarako, langile klase euskaldunari ahotsa emanet eta zaharkitutako proposamen sabindarrei aurre eginez (Ugarte, 1996: xxvi). Klase borroka dialektiko honetatik euskal identitatea, jadanik, nazio bezala eraikita eta egituratuta dagoela ondoriozta dezakegu: Marxen esanetan, proletario eta burgesiaren arteko gatazka, nazio mailako borroka legez agertzen baita lehenengoz (Marx, 1998: 65-66). Borroka honetan (Estatu-Nazio Espainiar eta Frantsesa alde batera utzita) euskal nazioa da agerian geratzen dena, botere hegemonikoa ahots ezberdinetan banatuz, Sabinok proposatutako dialektika negatibora bakoitzaren dis-kurtsoak egokituz eta errepikatuz: aldi berean ahots gabeko subalternitate

---

9. Jon Kortazarrek euskal eleberri tradicionala ideología abertzale hasiberri baten eramaile legez definitzen du (Kortazar, 1990: 11); Aldekoak bestalde, Txomin Agirreren *Auñamendiko Lorea* (1897) y Kresala (1906) lanei erreferentzia eginez zera diosku “el discurso hagiográfico-moral de la novela histórica pasa a Kresala, pero no tanto como sermón religioso sino como discurso moral e ideológico. El marcado carácter religioso de la primera se atenúa en la segunda, que, a pesar de acendrado catolicismo, encuentra acomodo dentro de los cauces de la novela regionalista, ideológica y moralmente tradicionalista” (Aldekoa, 2000: 117).

euskaldunaren ardatz izateko, eta Estatu-Nazio Espainiarren Beste izaera hartzeko.

1963an beraz, Oteizak *Quosque tandem* argitaratu zuen. Gabilondoren esanetan,

[...] historia eta kultura euskaldunen dilemari erantzun bakar eta betea eskaintzeko gauza izan zen. [...] esango genuke Oteiza izan zela 'esentzialismo estrategikoaz' (Spivak 'Subaltern Studies') baliatuz, Euskal Herriari lekune bate mateko saiorik gogorrena (Gabilondo, 2006: 44).

Oteizak euskal kulturaren mitologizatzaile/mitografo lana beregain hartu zuen etengabeko aldaketa sozialen garai honetan, baina lehenago eskultura sorkuntzari behin betiko bukaera eman zion (Echeverria, 2008: 13-14; Ugarte, 1996: 37-38; Zulaika, 2005: 87, 91). Gauguin, Cézanne, Mondrian edo Malevitx bezalako artistak oroitaziz, eta kolon-aurreko arte latinamerikarrak eraginda (Rowell, 2005: 27; Zulaika, 2005: 87), Oteizaren helburua mundu metafisikoaren ikuspegi oso baten bidez hutsa harrapatzea izango da (Rowell, 1998: 17, 25; Calvo, 2005: 57). Erlujosotasunean<sup>10</sup> erabat errotutako ikuspegiarekin, artea gizakiaren bizitzako transzendentzia metodo legez proposatuko du gure eskultoreak (Badiola, 1998: 31; Echeverria, 2008: 17). Eskultura-lana bukatzeak autorearen beraren logikari lotuta doa, azken helburu bezala proiektu etikoa gizarte ekintzaren bitartez osatzea baitauka (Badiola, 1998: 29). Proposamen hau gizarte mugimendu oso baten eragilea izan zen: hasteko maila artistikoan bertan, jadanik ezagunak diren Gabriel Arestirenganako loturekin adibidez<sup>11</sup>, poesia harri eta mailu legez ulertuta (Aldekoa, 2004: 168); 60 hamarkadako giro politikora ere iritsiz (inoiz banaduta egon baziren) (Ugarte, 1996: 85-86). Dena dela, Imanol Galfarsorok diena ezin da ahaztu: "Oteizaren hutsuneak zeharo dira engainagarriak. Amarru bat dira. Euskal substantzia etniko subordinatzailez bete-beteta dauden hutsuneak dira" (Galfarsoro, 2008: 22).

Ondorioen atalera iritsi baino lehenago, orain artekoaren irakurketa proposamena egingo dut hemen. Argi ikusi dugu: euskal identitate hegemonikoa erabat eazarrita eta errepikatuta barreiatzen joan da aztarna ezberdinetan zehar eta garaian garaiko europar mendebaldeko pentsamendu eta ikuspegiak diskurso propiora ekarri. Horrela bada, estatu gabeko nazioa izateak

---

10. Erlujoaren garrantzia Echeverria eta Rowellen aipu hauetan geratzen da argi: "no hay texto escrito de Oteiza donde éste no manifieste, de modo explícito, el significado religioso que da a su proyecto" (Echeverria, 2008: 19); y "consciente de que la sociedad moderna había abandonado la religión a favor de los favores laicos, tenía el convencimiento de que el arte estaba llamado a ocupar el lugar de la religión y asumir sus funciones originarias" (Rowell, 2005: 27).

11. Iñaki Aldekoaren esanetan, Gabriel Arestiren liburua den, "Harri eta Herri, reúne dos novedades que lo alejan de la poesía vasca que se había escrito hasta entonces: se trata de una poesía urbana y está escrita en verso libre. El libro fue un éxito y se convirtió en ícono de modernidad y progresismo. [...] [conectó] con una sensibilidad nueva. Joven, euskaldunberri, universitaria y, además, sensibilizada con valores como la solidaridad y el humanismo de izquierdas" (Aldekoa, 2004: 169).

eta era berean estatuaren eredura eraikitzeak gure nortasuna panoptiko bat bailitzan bir-sortu egin dela pentsa daiteke: hau da, euskal nortasunak alteritatea esentzia egiten duela onartuta (Gabilondo, 2008: 159); esentzia hau, ematen zaion sinpletasunari esker da posible ikustea. Identitate kolektiboak hala ere, ezin du ikusi, bere botere ardatzak euskalduna eta honen subalternitatearen (baskofrantsesak, edo baskonafarrak) artean erlazio hierarkikoa ezartzen duen heinean; horrela, leku guztietatik begiratutako gune itxi eta zarratua sortzen du Bestearen bitartez, non norbanakoa *izan* baino lehenago den: ikusi eta ikusia izatearen arteko erlazioa apurtu egiten da (Foucault, 2005: 205). Harrapatuta gaudie kanpoko begiradapean.

#### 4. ONDORIOAK

Gaur egungo Euskal Herrian edozein botere hegemonikok galduak zen tratasunaz hitz egiten du Joseba Gabilondok (Gabilondo, 2006: 55), eta orain arte esandakoak euskal identitate hegemonikoa botereen hierarkia joko berdin honen bidez eraikia dagoela erakutsi nahi izan du: nortasun espainolaren Beste bezala, eta une berean, alteritate propioen hegemonia bezala. Azken finean, estatu gabeko nazioa. Jaques Derridak “Marxen espektro” deitu zituen horien herentzia eta etengabe datorren horren adibide:

Las guerras interétnicas (¿hubo alguna vez otras?) se multiplican, guiadas por un fantasma y un concepto arcaicos, por un fantasma conceptual primitivo de la comunidad, de Estado-nación, de la soberanía, de las fronteras, del suelo y de la sangre. El arcaísmo no es un mal en sí, conserva sin duda un recurso irreducible. [...] Entendemos por ontología una axiomática que asocia indisolublemente el valor ontológico del ser-presente (on) a su situación, a la determinación estable y presentable de una localidad (el topos del territorio, del suelo, de la ciudad, del cuerpo en general). [...] Todo arraigamiento nacional, por ejemplo, arraiga en primer lugar en la memoria o en la angustia de una población desplazada – o desplazable –. Out of joint no lo está solamente el tiempo, sino también el espacio, el espacio en el tiempo, el espaciamiento (Derrida, 1995: 96).

Esan dezagun berriro, genealogia honetan ez dago esentziarik, euskal identitate hegemonikoaren (eta espainiar eta frantsesaren) gertakari jakin batzuen kanpoalde hutsa baizik.

Lehenengo ondorioak proposatzen ditut hemen Frantz Fanonen hitzok berridatziz: euskalduna, gaur egun, espainiarri begira eraikitzen da; azken batean, gu geugandik askatu beharko ginatekeela uste dut, euskalduna gorroto duen hori eta adoratzen duena gaixotasun berdina dela gertatzen baita; iraganak ezin gaitu orainaldian gidatu, ezin ditu gure ekintzetako bat ere erabaki (Fanón, 1993: 10, 110, 225, 231). Honengatik, eta atal honen hasierara itzulita, nazioko jendea jatorrizko edozein presentzia original eza batzen duen garaikidetasun soil bezala ulertu beharko genukeela esan dezakegu (Bhabha, 2008: 209). Honekin kolokan jartzen dudana ez da nazioaren ideia bakarrik, Estatu-Nazioarena baizik eta eredu legez egitura moderno hau hartzen duen edozein talde proiekturena. Aztertutako identitate proposamenek norbere esentzia Bestearen esentziari erantzen eta aurka

eginez eraiki dute. Hauxe da azaldutako “dialektika negatiboaren” ezaugarri nagusia, dominatzileen eredura eraikita egotea: imitatu egiten ditugu.

Ez dago esan beharrik, gure azterketaren objektua ez litzateke inondik ere Jon Juaristi<sup>12</sup> edo Fernando Savaterren<sup>13</sup> ikuspuntuetatik aztertu beharko, Gabilondo eta Galfarsorok argi utzi baitute (Galfarsoro, 2008: 60-65; Gabilondo, 2006: 20-21) pentsamendu postnacionalista habermasiarraren atzean ezkutatzen den jarrera neoliberal diskriminatzalea: modernotasunean, estatuak beste edozein instituzioek bezala, subjektu propioak sortzen dituelako eta unibertsaltasun demokratikoaren itxurapean ostendutako jarrera politikoak partikularitasun kulturalaren aldeko erreferentzia argia dakarrelako. Amaitzeko, literatura kritikariaren eta ikerlearen lana aldarrikatu nahi dut komunikazio honetan, pentsatzeko bide berriak ireki eta azterzeko beharrizana agerian geratu baita esandakoarekin. Ahal izan den neurrian Estatu-Nazio/estatu-erakonazien eraikuntza eraso ondoren; nazioaren ikuspegি modernoaren egituraren originaltasun, esentzialtasun eta naturaltasun eza salatu ondoren, kontzeptu hau berau birplanteatza proposatzen dut: euskal nazioa. Bhabharen hitzetan, ezberdintasunaren gizarte egituraketa (gutxiengoaren ahotik hitz eginez gero) kultura hibridazioa bilatzen duen etengabeko negoziazio konplexua izan behar da (Bhabha, 2008: 3). Hori bai, aldi berean, Spivaken hitzak errepikatuz: ez nuke batasuna bilatuko ezberdintasunaean; batzutan konfrontazioa integrazioa baino egokiagoa suerta daiteke (Spivak, 1987: 104).

## BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA, Joseba. “Euskara, egitasmo politikoa bihurtu: Sabino Aranaren asmoak denboraren gurpilean, euskaltzaletasunaren ildoan”. In: *Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, nº 48, 2. Bilbo: Euskaltzaindia, 2003; 829-847.
- ALDEKOA, Iñaki. *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein, 2004.
- ANDERSON, Benedict. *Imagined Communities, Reflections on the Origin and Spread of Nationalism*. London: Verso, 2000; 46, 81, 86 or.
- APALATEGI, Jokin. “Psicosociología de los movimientos nacionalitarios de Europa Occidental”. In: *Alteridades*, nº 14. México: Universidad Autónoma Metropolitana, 1997; 7-33.
- ASTORGANO ABAJO, Antonio; ASTORGANO LOZANO, Antonio M<sup>a</sup>. “Hervas y los apólogistas vascoiberistas en 1803”. In: *R/IEV*, 48, 1. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2003; 347-408.

12. Juaristiren iritziz “sólo Unamuno entre los inventores de la tradición vasca, fue consciente de la banalidad del objeto de sus deseos adolescentes [...]. Sociedad preweberiana, los vascos han opuesto desde hace siglo y medio una supuesta legitimidad tradicional a todo intento de instituir unas fórmulas de convivencia basadas en la legitimidad racional” (Juaristi, 1987: 290).

13. Savaterrek zera dio, “Yo no me ‘siento’ español [...] sino que me sé español, es decir, sé que a lo que yo soy desde el punto de vista estatal, cultural, histórico, lingüístico, se le llama español. Tengo lazos afectivos e intereses políticos con la empresa comunitaria llamada actualmente ‘España’” (Savater, 2000: 104).

- BADIOLA, Txomin. "Oteiza. Propòsit experimental". In: *Oteiza. Propòsit experimental*. Barcelona: Fundació Caixa de Pensions, 1988; 27-63.
- BHABHA, Homi K. *The location of culture*. London: Routledge, 2008; 3, 209. or.
- BIJUESCA, K. Josu. "El 'vizcaíno' de Sor Juana y la lengua del imperio". In: *Revista de humanidades: Tecnológico de Monterrey*, 5. Monterrey: Tecnológico de Monterrey, 1998; 13-28.
- \_\_\_\_\_. "Fragmentos de poesía vasca en la literatura española de los Siglos de Oro: reescritura y manipulación". In: *Oihenart: cuadernos de lengua y literatura*, 21. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2006; 61-72.
- \_\_\_\_\_. "Mikoleta euskal poesiaren aitzindari". In: *Actas del XII Symposium: Bilbao y sus literaturas-XII. Symposiumaren akten bilduma: Bilbo eta bere literaturak. Bidebarrieta. Revista de Humanidades y Ciencias Sociales de Bilbao-Bilboko Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria*, XIX. Bilbao: Bidebarrieta kulturgunea, 2008; 11-26.
- CALVO, Francisco. "Oteiza: postscriptum". In: *Oteiza: mito y modernidad / Oteiza mitoa eta modernotasuna*. Madrid: FMGB y SEACEX, 2005; 51-64.
- DERRIDA, Jacques. *Espectros de Marx: el estado de la deuda, el trabajo del duelo y la nueva internacional*. Madrid: Trotta, 1995; 96. or.
- ECHEVERRIA, Jon. *La finalidad del arte. La obra y el pensamiento de Jorge Oteiza: arte, estética y religión*. Barcelona: Universitat Pompeu Fabra (Doktore tesia), 2008; 13-14, 17. or.
- FOUCAULT, Michel. *Microfísica del poder*. Madrid: La piqueta. 1978; 11, 13. or.
- \_\_\_\_\_. *La arqueología del saber*. Madrid: Siglo XXI, 1988; 278. or.
- \_\_\_\_\_. *Vigilar y castigar, Nacimiento de la prisión*. Madrid: Siglo XXI, 2005; 205. or.
- GABILONDO, Joseba. "Befote Babel. Global Media, Ethnic Hybridity, and Enjoyment in Basque Culture". In: *RIEV*, 44-1. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999; 7-49. or.
- \_\_\_\_\_. *Nazioaren hondarrak, euskal literatura garaikidearen historia postnacional baterako hastappenak*. Bilbao: Universidad del País Vasco, 2006; 44, 55, 20-21. or.
- \_\_\_\_\_. "Imagining Basques: Dual Otherness from European Imperialism to American Globalization". In: *RIEV. Cuadernos*, 2. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2008; 145-173. or.
- GALFARSORO, Imanol. *Kultura eta identitate erbesteratuak (Nomadología subalternoa)*. Iruña: Pamiela, 2005; 50. or.
- \_\_\_\_\_. *Subordinazioaren kontra*. Iruña: Pamiela, 2008; 22, 60-65. or.
- GARCIA, Prudencio. *La España metafísica, lectura crítica del pensamiento de Ramón Menéndez Pidal (1891-1936)*, Iker 16. Bilbao: Euskaltzaindia, EHU/UPV, 2004; 546. or.
- GOMEZ, Ricardo. "Astarloaren Discursos filosóficos: iturriak eta axiomak". In: *Lapurdum*, 9. Bordeaux: Université Michel de Montaigne, 2005; 117-133.
- GOYHENETCHE, Manex. *Historia general del País Vasco. A las puertas de la sociedad moderna* (Tomo III). Donostia: Tartalo, 2005, 181. or.
- HARDT, Michael; NEGRI, Antonio. *Imperio*. Barcelona: Paidós, 2005; 91, 98-99, 143, 146, 149, 263. or.

- IZTUETA, Paulo. "Sabino Arana eta bere eragina euskal pizkundean". In: *Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 48-2. Bilbo: Euskaltzaindia, 2003; 859-930.
- JUARISTI, Jon. *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*. Madrid: Taurus ediciones, 1987; 290. or.
- KORTAZAR, Jon. *Literatura Vasca: siglo XX*. Donostia: Etor, 1990; 11. or.
- MARX, Karl. *El 18 brumario de Luis Bonaparte*. Barcelona: Ariel, 1977; 142. or.
- \_\_\_\_\_; ENGELS, Friedrich. *Alderdi Komunistaren Manifestua*. Lizarra: Jakin, 1998; 52, 77, 65-66. or.
- MESS, Ludger. "Sabino Arana, el contexto y la política". In: *Hermes. Revista de pensamiento e historia*, nº 11. Bilbao: Fundación Sabino Arana Kultur Elkargoa, 2004; 6-16.
- ROWELL, Margit. "Una modernitat intemporal". In: *Oteiza. Propòsit experimental*. Barcelona: Fundació Caixa de Pensions, 1988; 15-26.
- \_\_\_\_\_. "sentido del sitio / sentido del espacio: la escultura de jorge oteiza". In: *Oteiza: mito y modernidad / Oteiza mitoa eta modernotasuna*. Madrid: FMGB y SEACEX, 2005: 25-50.
- SAID, Edward W. *Cultura e imperialismo*. Barcelona: Anagrama, 2004; 354, 546. or.
- \_\_\_\_\_. *Orientalismo*. Barcelona: Debolsillo, 2007; 360-360. or.
- SAVATER, Fernando. *Contra las patrias*. Barcelona: Fabula Tusquets editores, 2000; 104.
- SPIVAK, Gayatri C. *In other worlds. Essays in cultural politics*. London: Methuen, 1987; 104, 105 or.
- TOLEDO, Ana. "Musen arnasatik goi-arnasara euskal letretan barrena". In: *Euskera*, 51-2. Donostia: Euskaltzaindia, 2006; 629-656.
- UGARTE, Luxio. *La reconstrucción de la identidad cultural vasca. Oteiza / Chillida*. Madrid: Siglo veintiuno de España Editores, 1996: xxvi, 37-38, 85-86. or.
- ZUBIAUR, Jose Ramón. *Las ideas lingüísticas en el siglo XVI (Zaldibia, Garibay, Poza)*. Donostia: Universidad de Deusto, 1990, 17, 58, 72-75. or.
- ZULAIKA, Joseba. "Oteiza / Ghery / Guggenheim: mitografías, retornos, acciones diferas". In: *Oteiza: mito y modernidad / Oteiza: mitoa eta modernotasuna*. Madrid: FMGB y SEACEX, 2005: 85-98.